

Zambiar bat Marten

LUSAKA TIMES



MARRIUS HEIDERICH



Ezkerrean, Edward Makuka Nkoloso Zambiar programa espazialaren sortzaileak *Lusaka Times* egunkarian idatzitako artikulua; "Martera goaz!" dio izenburuak. Alboan, *Afronauts* (Frances Bodomo, 2014) film laburraren irudi bat. Filmak zambiar programa espaziala du hizpide eta Diandra Forrest aktoreak herrialdeko lehen astronauta izango omen zen Matha Mwamba neskatoaren rola jokatzen du.

ZAMBIA, 1964KO URRIAREN 24A. Ordura arte Ipar Rhodesia zenak independentzia aldarrikatu eta Erresuma Batuaren mendean egoteari utzi zion. Gauza asko egiteke zeuden herrialde berrian, baina Zambiar programa espazial handinahia abian zen ordurako. Gerra Hotz betean, estatubatuarren eta sobietarren arteko lehia espazioraino zabaldua zen, baina oraindik bost urte falta ziren gizakiak lehenengoz Ilargia zapaltzeko. Zambiar potentzia nagusiei aurrea hartuko ziekenez, 1964an bertan sortutako ekimena gauzatzea lortu bazuten: eskifaturako misioa Ilargira eramango zuten, baina satelitean geldialdia egin ondoren, Marteraino iritsiko ziren.

Planaren ideologoa Edward Makuka Nkoloso zen, eskola irakaslea eta bere burua Zambiar Espazio Agentziako zuzendari nagusi izendatu zuena. Agentzia bera Nkolosok sortu zuen eta izen dotorea jarri zion: Zambia National Academy of Science, Space Research and Philosophy. Aluminioz egindako kohetea katapultatutako gailu batez jaurtitzea zen asmoa, eta Nkolosok dozena bat boluntarioren laguntza bildu zuen horretarako, horien artean misiolari bat eta Matha Mwamba 17 urteko neskatoa. Marte zapaltzen lehenak nerabea, misiolaria eta bi katu izango ziren. Hori bai, misiolariak

agindu zehatzak jaso zituen: ilargitarrak eta martetarrak ez zituen ebanjelizatuko haiek nahi ez bazuten.

Programa espazialak finantziarioa behar zuen eta Nkolosok zazpi milioi libera zambiar eskatu zizkion UNESCOri. Baina ez zuen erantzunik jaso. Zambiar gobernu berriak ere ez entzunarena egin zuen. Horregatik, Nkolosok independentziaren ospakizunak baliatu zituen nazioarteko kazetariari proiektuaren berri emateko. Urriaren 30ean *Time* aldizkariak *Zambia: Tomorrow the Moon* (Zambia: bihar Ilargia) izenburuko erreportajea argitaratu zuen. Independentziaren nondik norakoez gain, zambiar astronauten entrenamenduari buruzko xehetasunak jaso zituen testuak: kasko zahar bat jarri, olio upeletan sartu eta aldapan beheara botatzen zituzten, edo zuhaitz batean esekitako kulunkari gogor eragiten zioten, "astronautek espazioko pisugabetasun sentipena izateko". Berehala beste komunikabide askok eman zuten Nkolosoren ekimenaren berri. Baina haien asmoa ez zen proiektua sustatzea, zambiarraz trufatzea baizik. Gogogabetuta, Nkolosok hurrengo ametsari ekin zion: Lusako alkate izatea. Helburua eskuragarriagoa zen, baina hura ere ez zuen lortu. ■



Arrastoak

Ardo urrintsua edaten zuten Antzinaroan

ANDREW J. KOH



TEL KABRI aztarnategian, Israel iparraldean, Ekialde Hurbileko ardotegi zaharrenaren arrastoak aurkitu zituzten duela urtebete inguru. K.a. 1700. urtekoak ziren gela bakarrean aurkitutako 40 lusuilak, eta 2.000 litro ardo inguru biltzen zituztela kalkulatu zuten arkeologoek. Lusuiletako arrasto organikoak aztertuta, ontziek

ardoa zutela baieztatu zuten lehenik, azido tartarikoak eta siringikoak topatu baitzituzten. Baina osagaiak xeheago aztertzeke aukera ere izan dute eta, berriki argitaratu dutenez, ardoari ezia, estoraka eta ahuntzadar erretxina, zedro olioak, ipurua, menta, mirtoa eta kanela botatzen zioten Antzinaroko ardogileek. ■